

11 Aplikazio-jarduera: Nork egin zuen posible Gerra Hotzaren amaiera?

1. Erantzun galderei hitzaldiaren pasarteko informazioan oinarrituta. Azpimarratu galderei erantzuteko balio dezaketen pasarteak. Bukatzeko, kopiatu erantzun-pasarteok.

NAZIOAREN EGOERARI BURUZKO HITZALDIA (1992)

Bozeramaile jauna eta presidente jauna, Kongresuko kideok, gonbidatu jaun-andreok eta herritarrok:

(...) Gaur iluntzean gure historian eta gizakiak lurrean daraman historiako arorik itxaropentsuenari eta hunkigarrienari ekingo diogu. Azken hamabi hilabeteotan, munduak ia-ia aldaketa biblikoak ikusi ditu. Eta oraindik ere, kale egin duen sistema hondoratzeko kolpe makurraren ostean hilabete batzuk igaro diren honetan, ez nago ziur inpaktu osoa barneratu ote dugun, gertatu denaren garrantziaz jabetzen ote garen. Baina aurten komunismoarenak egin du!



AEBko presidentek urtero egiten du Kongresuan Nazioaren Egoerari buruzko Hitzaldia

(...) Baina nire bizitza osoan, geure bizitza osoan, ikusitako munduko gertakariarik handiena zera da: Jainkoaren graziari esker, Estatu Batuek Gerra Hotza irabazi dutela.

Gaur iluntzean gure herrian gerta litezkeen aldaketez hitz egingo dut; izan ere, aurrerantzean ez dugu egin beharko orain arteko sakrifizioen tankerakorik, superpotentzia bat etsai (publiko) aitortutzat genuenean bezalakorik. Orain etxe barrura begiratuko dugu (geure kolkora), eta etxe barruan zuzenduko ditugu zuzendu beharrekoak.

(...) Horrenbestez, orain, lehen aldiz 35 urtez, gure bonbardaketari estrategikoak lurreratu (geratu) egin dira. Ez dira gehiago etenik gabeko alertan egongo. (...) Nire bilobek (...) ez dute izango garai bateko haurrek izaten zituzten amesgaiztoak. Oraindik ere badira mehatxuak. Baina luzez arrastatutako izua (urte beldurgarriak) amaitu dira.

Makina bat on etor daiteke indarra zuhurtziaz erabilita. Eta makina bat on etorriko da honako ideia honetatik: bi eremu armatutan zatitutako munduak orain indar gailen bakarra aitortzen du, Amerikako Estatu Batuak. Eta beldurrik gabe begiratuko diote. Munduak konfiantza du gure aginpidean, eta zuzen daude. Konfiantza du gure bidezktasunean eta pazientzian. Konfiantza du gure duintasunean. Konfiantza du gure zuzentasunean.

George Bush AEBko presidentea, Nazioaren Egoerari buruzko Hitzaldia, 1992ko urtarrilaren 28a.

a) Nork egin zuen hitzaldia?

b) Norentzat egin zuen hitzaldia?

c) Hitzaldia oinarri hartuta, nola uste duzue gertatu zela Gerra Hotzaren amaiera?

d) Nork dirudi gatazkaren amaieraren burua?

e) Zuen ustez, berak ematen duen informazioa fi dagarria al da? Zergatik?

f) Zuen ustez, kezkatuta zegoen Bush Giza Eskubide Unibertsalekin erabaki hau hartu zuenean?